

# 2021

iraunkortasun  
memoria



## 25 urte mugimenduan

2021. urtea 24. ekitaldia izan dugu Emunen: 25.urteurrenaren atarian, 24 urte eraldaketan.

Emunen beti etengabeko mugimenduan gaude, bidean agertzen zaizkigun beharrei eta erronkei egokitzuz. Barruan eraldatuz, kanpoan eraldatzeko. Barrutik kanpora, kanpoan errora, eragile zein bidelagun izanik.

Barruko zein kanpoko eraldaketa horretan, 2021ean, oraindik ere pandemiaren testuinguruan, baina egoera normalizatu baterantz, plan estrategikoan zehaztutako hiru norabideetan biltzen diren erronkak jorratzen aritu gara buru-belarri:



**Bezeroa erdigunean** kokatuta, lan egiteko moduetan sakonduz. Bezeroen beharrak hobeto ulertzeko eta bidelagun egokiak izateko, bezeroa erdigunerago jarri nahian. Horretarako, gure lana, egitekoak eta egiteko moduak eguneratzen jardun dugu: bezero taldeak indartu, berrikuntza espazioak hedatu eta ireki, bezeroen proiektuetan komunikazio ikuspegia landu...



**Pertsonak zein kooperatibaren kultura zaindu.** Bezeroen etxeak eraldatzeko, norberaren etxea etengabe eraldatzea da lehen urratsa. Emunkideon ahalduntzea ahalbidetuko duen gidaritza kolektiboagoa sustatu nahi dugu, eta antolamendu berriak probatzen gabiltza: 24 urteko ibilbidea izan duen Zuzendaritzari itxiera eman diogu 2021ean, antolatzeko beste modu batzuei lekua egiteko asmoz. Koordinazio orokorrerako 3 kideko taldea jarri dugu abian, eta prozesua indartzeko helburuarekin hainbat trebakuntza eta kontzientziazio saio egin ditugu...

2021a urte mugitua izan dugu Emunen. Eraldaketan gara. Eraldaketa gara.

Mugitzen eta eraldatzen jarrai dezagun, atarian dugun 25. urteurrena izan dadila Emunen, bezeroen eta gizartearen eraldaketan urratsak egiten jarraitzeko indarra emango digun urtea, gizarte euskaldun, justu eta iraunkorrako bat lortzera bidean.



**Iraunkortasunean,** erakundea osatzen duten pertsonengan, ingurumenean eta, oro har, gizartean dugun eragina orekatua izatea bilatzen dugu. 2021a iraunkortasuna prozesu gisa kudeatzeari ekin diogun urtea izan da. Gure lehenengo iraunkortasun memoria idazten ere jardun dugu. Iraunkortasun ekonomikoari dagokionez, ez dugu ezohiko neurri ekonomikorik hartu behar izan, eta emaitza positiboa izatea lortu dugu. Dimentsio sozialean, interes taldeekin harremanetan jarraitu dugu eta 2020an irabazirik izan ez arren, ekarpen ekonomikoa egin dugu beharrezkotzat jotako kasu batzuetan. Barrura begira, normaltasunerako bidea egiten aritu gara, emunkideon arteko gertutasuna berreskuratzeko nahiarekin, baina lan egiteko modu berriak ere ahalbidetuz, telelana adibidez. Ingurumenari dagokionez, gure mugikortasuna handituz doa 2020arekiko, baina gure energia kontsumoa iraunkorrakoa izan dadin lanean jarraitu dugu.



Olatz Olaso Garitano eta Kristina Pavo Nuñez  
- Emuneko organoetako ordezkariak -





## Aurkibidea

- 1 emun gara
- 2 eraldaketarako eragile eta bidelagun
- 3 pertsonak erdigunean
- 4 parte hartzea dugu oinarri eta helburu
- 5 planetarekiko begirunez jokutzen dugu
- 6 komunitatearekin batera hazi nahi dugu
- 7 txostena egiteko prozedura





**emun gara**



## Lantalde dinamikoa, profesionala eta konprometitua gara

Emun Koop. E. 1997an sortu zen gizartearen premia bati erantzun zuzena emateko desira eta konpromisorekin. Helburu sozial bati erantzuteko, gure egitura edo antolaketa sozialki arduratsua beharko luke, eta horregatik, kooperatiba gisa sortu zen gure enpresa proiektua.

Gure bulego nagusia [Arrasaten](#) dago eta bezeroengandik ahalik eta gertuen egote aldera, beste hiru bulego ditugu: [Andoainen](#), [Berriozarren](#) eta [Bilbon](#).

89 emunkidez osatuta dago gure [lantaldea](#). Lantalde dinamikoa, diziplina anitzekoa, modernoa, profesionala, hurbila eta konprometitua gara. Horixe da, hain zuzen, Emun.

Bezeroarekin batera egiten dugu lan, eta gure aholkulari gehienek bezeroaren etxean bertan ematen dute dagokien zerbitzua. Hartara, bezeroaren beharrak eta nahiak egunerokoan bizi ditugu eta, gertutasun horretaz baliatuz, irtenbiderik egokienak proposatzen, bideratzen edo gauzatzen bidelagun gaitu bezeroak.

Lankide kopuruaren arabera dimentsio sozialari erreparatuz gero, Emun da Euskalgintza eremuko aholkularitza arloko erakunde profesional handiena. Zentzu horretan, Emun da lan eremuan euskara plan gehien kudeatzen dituen aholkularitza enpresa: EAEko Lanhitz dirulaguntza ildora aurkeztutako euskara plana duten bezeroen %53 gure bezero dira.





# #emun 2021-2024



## BISIOA


Emun eragile eta bidelagun izatea, eraldaketa sozialaren bidez gizarte euskaldun, justu eta iraunkorra lortzeko.

## MISIOA

Emunek gai sozialak kudeatzeko aholkularitza eta lankidetzak eskaintzen du euskararen eta berrikuntza sozialaren arloan. Eraldaketa sozialarekin konprometituta gaude, eta helburu hori lortzeko emunkidea eta bezeroa erdigunean jarri, eta kultura parte-hartzailea eta parekidea oinarri hartuta, elkarlanean aritzen gara bezeroekin eta gainerako eragileekin.



2020an pandemia betean egindako hausnarketa estrategikoa abiatzeko urtea izan da 2021a.



## BALIOAK

**EUSKALTZALETASUNA:** euskaraz bizi nahi dugu.

**PERTSONA ERDIGUNEAN:** emunkideok elkar zaintzen dugu, eta konpromisotik eta hurbiltasunetik bezeroaren beharrak asetzen ditugu.

**PAREKIDETASUNA:** genero arteko desorekak gutxitzea bultzatzen dugu, ikuspegi feminista eta eraldatzailearekin portaera ez sexistak bermatzeko.

**IRAUNKORTASUNA:** Emun osatzen dugun pertsonengan, ingurumenean, eta oro har, gizartean dugun eragina orekatua izan dadin bilatzen dugu, erantzunkidetasunaren bidez.

**BERRITZEKO GRINA:** erronkei aurre hartu eta horiei erantzuteko, elkarlanean jarduten dugu, ilusioz eta sormenez.

## Iraunkortasunarekin konpromisoa

Emun gizarte konplexu honetako parte den neurrian, beharrezkoa da gizartean sortzen duen inpaktuaz jabetzea, izan ere, inpaktu horretaz jabetzea eta enpresa modu iraunkorrean kudeatzea da enpresak gizartearekiko erantzukizunez jokatzeko. Helburu horri heldu diogu, modu kontzientean heldu ere, azken 2 urteetan.

2019an barne diagnostikoa egin genuen [Erakide](#) tresna erabiliz (Gipuzkoako Foru Aldundiak, Farapik, Beterri Buruntza eta Urola Garaiaiko garapen agentziek elkarlanean sortutakoa): Iraunkortasunaren 3 dimentsio nagusiak erdigunean jarri, eta lantalde bat osatu eta hausnarketa egin genuen. Ikasketa horien ondorioz, Emuneko organo nagusiek iraunkortasunarekiko konpromisoa berretsi ondoren, erakundeko iraunkortasun estrategia definitzeko prozesua abiatu genuen, eta gure plan estrategikoan integratu genituen materialitate matrizean adostutako lehentasunak.

Garapen iraunkorrerako helburuak oinarri hartuta, 2021-2024ko plan estrategikoan Emunek eragindako inpaktu positiboak zein negatiboak identifikatu genituen, baita zaindu edo elikatu beharreko helburuak lehenetsi ere.

“Emun iraunkorra dela esango dugu baldin eta erakundea osatzen duten pertsonengan, ingurumenean eta, oro har, gizartean duen eragina orekatua bada, hau da, etorkizunean irauteko baldintzak sortzen baditu.





# GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

## Bidelagun rola hartu eta inpaktu negatiboak minimizatzea joko dugu



- Gure kontsumo energetikoa modu eraginkorren kudeatuko dugu
- Energia berriztagarrien aldeko erabakiak hartuko ditugu
- Energiaren autosorkuntzarako bideak landuko ditugu
- Bulegoko baliabideen kontsumo arduratsua eta eraginkorra
- Sortzen ditugun hondakinen kudeaketa egokia
- Emunen berotegi efektuko gasen isurpenak murriztu: energia kontsumoa + mugikortasuna
- Helburu hau duten proiektu edo ekimenak sustatu edo lagundu

## Eragile rola hartu eta inpaktu positiboa maximizatzea joko dugu:



- Ikasketa mailetatik lan mundurako saltoan, euskararen transmisioa bermatzeko lanean eta kooperazioan
- Generoen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko lanetan formazioa eman, eta kontzientziazio mahaietan parte hartu
- Gure pertsonen garapen integralerako plana egin



- Enpresetan zein administrazioetan genero berdintasuneko planak egin
- Kontzientziazio ekimen eta mahai inguruetan parte hartu
- Emunen bertan berdintasun plana kudeatu



- Berrikuntzan inbertitzen eta gure kudeaketa eredian, ardatz
- Lan baldintza duinak eskainiko ditugu, eta kolektiboaren bizi baldintzak bermatuko ditugu
- Enplegu duinak sortu eta mantentzeko politikak eta kudeaketa iraunkorra egingo ditugu
- Gizarte ekimenetan helburu hau duten egitasmotan parte hartu, eta horiek aldarrikatuko ditugu



- Tokian tokiko ikuspegitik, hizkuntzen kudeaketa inklusiboa sustatu, eta euskara planak aurrera eramango ditugu




- Askotariko interesdunen arteko aliantzak sortu eta babestu
- Garapen bidean daude herrialdeetan gaitasun eraginkorrak eta zehatzak sortzen lagundu
- GIH. egindako aurrerapenen berri emango dugu gure memorietan




## Aberastasun ekonomikoaren sorrera eta banaketa

2021ean ez dugu ezohiko neurri berezirik hartu behar izan, eta gure inbertsio proiektuak zein bezero proiektuak aurrera eramateko gaitasuna izan dugu. Gainera, ustiapen emaitza positiboa lortu dugu.

Datu ekonomikoei erreparatuta, jarraian jaso ditugu 2021eko emaitzak eta azken 3 urteetako datuen bilakaera:



## Irabazien/Galeren banaketa



Galerak izan ditugun urteetan erreserba fondoetatik egin diogu aurre egoerari. Konpentsatzeko, irabaziak izan ditugunean, fondoak indartzeko ahalegina egin dugu.



**eraldaketarako  
eragile eta  
bidelagun**






Emunek euskara eta berrikuntza soziala xede dituzten zerbitzuak eskaintzen ditu.

Berrikuntza sozialtzat ulertzen dugu, hain zuzen, gure gizarteak dituen arazo, erronka eta behar konplexuei erantzun berritzailea ematea.


Justizia soziala eta aukera berdintasuna ditugu helmuga, eta horietara heltzen saiatzen gara gure eguneroko jardunaren eta gure zerbitzuen bidez.

Euskararen biziberritzea izan da gure ardatz nagusia urteetan. Euskarak parekidetasuna lortzea eta arlo sozioekonomikoan dagokion lekua ematea. Azken helburu hori albo batera utzi gabe, eragiteko esparrua zabaldu dugu, eta beste zerbitzu batzuetan ere jarduten dugu gaur egun, hala nola gizartearen aniztasunaren kudeaketan, kulturaren kudeaketan, erakundeen gizarte erantzukizun zein iraunkortasun estrategien kudeaketan, genero berdintasunean, herritarrek parte hartzeko arloan eta berrikuntza plataformetan.

Gure zerbitzuek oinarri komuna dute: aukera berdintasuna eta justizia soziala oinarri duen jendartea nahi dugu, eta ondorioz, gure barrenetik abiatzen ditugu eraldaketa prozesuak. Gu garenetik, Emunen baitako pertsonak, sistemak eta politikak helburu hauen lorpenera bideratzen ditugu, eta ondorioz, gure bizipenetatik eta ezagutzetatik gizarteari eta bezeroari zuzentzen gatazkieko helburu honetan bidelagun aurkeztuz.




Emunek Euskal Herriko gizarteak dituen premiei erantzuten die. Gure merkatua Euskal Herrira mugatzen da, gure zerbitzu guztietan euskara baita oinarri eta ardatz nagusia behar sozial horiei zeharlerrotasunez erantzuteko. Gaur egun 5 multzo nagusi hauetan barnebiltzen ditugu gure aholkularitza zerbitzuak:




2.926 m€  
%82

Gizarte batek, modu iraunkorrean garatzeko, tokiko hizkuntza eta kultura izan behar ditu ardatz.




216 m€  
%6

Herritarren parte hartzea da gobernantza irekia garatzeko ardatz nagusia. Ezinbestekoa da herritarrekin eta gizarte eragileekin elkarlanean lan egitea.




122 m€  
%3

Enpresak gizarteko parte garenez, beharrezkoa da sortzen ditugun inpaktuez jabetzea. Inpaktu horiek egoki kudeatzea da enpresa sozialki arduratsua izatea.



109 m€  
%3

Hainbat erakunde, eragile eta herritarrez osatutako lankidetzak sare irekiak diseinatzen eta garatzen ditugu, komunitatearen helburu partekatuei aterabide berritzaileak eskaintzeko.



221 m€  
%6

Emakumeen ahalduntzeak gizarte osoari egiten dio mesede.

**emun**  
Euskara eta  
berrikuntza soziala

Gai sozialak kudeatzen lagunduko  
dizun aholkularitza gara

Fakturazioa -> 3.594 m€  
89 pertsonako lantaldea  
240 proiektutik gora



# Gure bezeroak erdigunera ekartzen ditugu


Gure bezeroak 2 multzo nagusitan bereizten ditugu, Enpresak eta Administrazioak.

Enpresetan, lan munduan kokatzen gara, eta gure zerbitzuen bitartez, lan munduko behar sozialei erantzutea dugu helburu. Horretarako, bezeroaren bidelagun bilakatzen gara, eta elkarlanean haren eguneroko premiak aintzat hartzen ditugu: hango lantaldearekin batera erakundeetan landu eta eraldatu nahi dituzten arloak sakon aztertzen ditugu, pertsonak ahaldundu eta erakundeetan landutakoaren emaitzen itzulkinak bistaratu.

Administrazioan, berriz, herri mailako proiektuak bideratzeko aholkularitza ematen dugu, eta administrazioako barne lanketetan bidelagun gara.

2021. urtean, 244 bezero edo proiektu aholkatu edo lagundu ditugu. Bezero fidelizazio maila altua dugu, %80tik gorakoa. Aurten, 46 bezero/proiektu berri lagundu ditugu.


Gure proiektuen berri ematen dugu, proiektu bakoitzaren helburu eta emaitzak sintetizatuta.



Enpresak  
%74



Adminis-  
trazioa  
%26



244 bezero

## *Bezeroa erdigunean izatea indartuko duen antolamendua eta kultura eraikiz*

Momentu honetan, Emunen jarduera antolatzeko egitura egokitzeko lanetan ari gara.

Orain arte zerbitzuen arabera egituratu gara, dagozkien zuzendari, arduradun eta lantaldeekin, eta, bezeroarenganako orientazioa oinarri, bezero bakoitzari ematen dizkiogun zerbitzuen arteko koordinazioa edo osagarritasuna ziurtatu izan dugu, bezero bakoitzaren arabera propio eraturako batzordeekin.

Antolamendu eredu berrian, Bezeroa ekarri dugu gure antolaketa ereduaren erdigunera, eta haren errealitate eta beharrei erantzuteko ari gara erakundea bera antolatzen; horrenbestez, bezeroarengandik gertu dauden gune eta pertsonen zerbitzura jarriko ditugu erakundeko prozesu, baliabide eta lantaldeak.

2021a aldaketa abiatzeko urtea izan da, eta ikasketak oinarri hartuta, bezeroa erdigunera ekartzeko asmoa duen antolamendu ereduko gune nagusiak martxan jartzen hasi gara: Bezero Taldeak.





## Berrikuntza estrategia

Gure bezeroen beharrei erantzuteko ezinbestean garatu beharreko estrategia izan da berrikuntzarena. 2021ean ere, berrikuntzan ipar nagusi bat izan dugu jomugan: berrikuntzarako espazioak hedatu eta irekitzea. Horretarako, 3 estrategia abiatu ditugu:

1. Zerbitzuetako metodologietan sakondu, eta lan dinamika berriak probatuz
2. Zerbitzu arteko osagarritasunean sakonduta
3. Emunek eskaintzen dituen zerbitzuen kudeaketa integrala eskainita

Era berean, gure zerbitzu edo bezeroen dimentsioari begirako 2 proiektu abiatu ditugu:

- Eraldaketaren muinak: edozein gai sozialen eraldaketa bultzatu nahi dugunerako, oinarrizko gakoan inguruko hausnarketa eta bideak jaso ditugu, dagoeneko Emunen dauden esperientzia eta ezagutzetatik abiatuta eta beste iturri batzuekin osatuz.
- Berrikuntzak gurean garatu behar dituen 6 ezaugarriak adostu ditugu: irekia, zeharkakoa, arina, beta, lankidetzakoa eta teknologikoa.

Amaitzeko, eraldaketa digitalaren garrantziaz jabetuta, ohiko jardunbideak indartu ditugu, eta eraldaketa digital bera proiektu gako gisa landu dugu. Lanketa horretatik eraldaketa digitalen gure zertarakoa eta 3 lan ildo adostu ditugu, datozen urteetan hedatzeko asmoz.

Eraldaketa prozesuetan inaktu handiagoa lortze da digitalizazioaren helburua. Barne eta kanpo mailako efizientzia lortuz eta geroz eta jende gehiagorengana iritsiz.

**1** GURE ZERBITZUEI BALIO ERANTSIA ESKAINIZ

**2** ZERBITZU DIGITAL BERRIAK SORTUZ

**3** DIGITALIZAZIO KULTURA LANDUZ

*Iraunkortasuna bermatzeko eta gizarteak dituen premia konplexuei erantzuteko, gakoa da berrikuntza. Berrikuntza eredu irekian sinesten dugu, erakundeko pertsonak prozesu honetan gakoak direla uste dugu, eta, horregatik, kultura berritzailea gure barne balio gisa ulertzen dugu, berritzeko grina sustatuz eta elikatuz.*

2021ean:



**34**

proiektu



**45**

pertsona



**5.629**

ordu


## Balio katearen garrantzia

Iraunkortasunaren alorrean garrantzitsua da erakundeak balio katean eragiteko daukan gaitasuna, eta zentzu horretan, eraldaketarako eragile eta bidelagun izateko bokazioari erantzun integrala emateko, hornidura katean arreta berezia jartzen dugu.

Bi motatako hornitzaileak ditugu:

- **Zuzenekoak:** gure zerbitzua bezeroari eskaini eta emateko orduan zuzenean parte hartzen dutenak. Gakoak dira gure balio katean eta kalitate parametroei erantzungo dietenen hornitzaileak identifikatu eta aukeratzen ditugu. Gainera, elkarlanean gauzatutako proiektua amaitzean balorazioa egiten dugu eta aurrera begira hobetzekoak identifikatzen ditugu.
- **Zeharkakoak:** Emunek erakunde gisa dituen bestelako hornidura beharrei erantzuten dietenak. Erantzukizun soziala ardatz hartuta eta gure zerbitzuekin zein balioekin bat eginez, horietara gerturatzen diren hornitzaileak lehenesten ditugu.

Gure jardueraren ondorioz, sortzen dugun aberastasunaren banaketari erreparatzen badiogu, 2021ean hornitzaileetara bideratutako guztirakoa 362 m€ da: kopuru horren %73 Euskal Herriko hornitzaileek jasotzen dute.



### Hornitzaileen hautaketarako irizpide argiak ditugu:

- Zerbitzua euskaraz emango digutenak (Euskal Herrian dauden kasuan)
- Geografikoki gertu ditugunak
- Ohiko horniduretan ingurumenaren alorreko eraldaketak egiten ari direnak, kontsumo arduratsua egiten dutenak eta ekonomia zirkularreko baliabideak dituztenak lehenesten ditugu
- Garapen iraunkorrerako helburuekin lotutako eskaintza duten erakundeak, adibidez:
  - inklusioaren alde lanean ari direnak.
  - Hainbat arlo edo mailatan burujabetza lantzen dutenak: elikadura, energia, ogibide eta landaguneak indartzea.

Azken urtean 43 hornitzaile berri izan ditugu eta horietatik 18, Euskal Herrikoak.

Gure iraunkortasun estrategiaren implementazioan, gaur-gaurkoz, ez gara iritsi gure hornitzaileen inpaktu propioaren berri jaso eta kudeatzeko lanetara.

Hizkuntzari dagokionez, Euskal Herriko gure gertuko hornitzaile zein aliatuei eskaera zuzena egin diegu gurekiko ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz egin ditzaten, eta, hala, euskararen aldeko politika ezarri, eta hizkuntza berdintasunean diskriminazio positiboa egingo dugu.








**pertsonak  
erdigunean**



Emunen pertsonak erdigunean ditugu. Gure aktibo garrantzitsuenak dira, eta emunkideek beren onena ematea dugu helburu. Konfiantza eta segurtasun espazioak eta harreman mekanismoak aktibatzen ditugu, eta pertsona ahaldundu eta erakundeko parte aktibo eta erantzule izateko beharrezko ezagutza eta informazioa eskura jartzen dugu.

Enpresa kultura aurreratu bat eraikitzeke lanean ari gara; talde lana sustatzen duena, aniztasuna kudeatzen dakiena, pertsonen osasuna zaintzen duena eta lana eta familia uztartzeko aukera ematen duena.



# 89

emunkide

57 emakume

32 gizon







## *Eraldaketa eragiteko antolamendua eta kultura eraikiz*

Barne eraldaketa prozesua abian dugu Emunen. Gai sozialen kudeaketan aholkulari gisa egindako ibilbidean ikasitakoak baliatu, lanerako testuinguru berriak eraiki eta pertsonen gaitasunetan sakonduta, jauzi esanguratsua egin nahi dugu erakunde gisa. Gaur egungo eta etorkizuneko erronka sozial eta ekonomikoei erantzuteko prestatu nahi dugu gure erakundea.

Enpresa estrategiaren mailakoa da egiten ari garen prozesua, eta erakundeko egitura, prozesu eta langile guztiei eragiten die. Ez gara ari aldaketa batzuk txertatzen; eraldaketa eragiteko baldintzak sortzen ari gara. Lantaldeko kideon ahalduntzean eta garapenean oinarritutakoa izango da eraldaketa; pertsonak ditu aldagai nagusi. Antolaketa testuinguru egokiak sortu, horietan jarduteko trebatu eta garapenerako baliabideak eskainita egiten ari gara prozesua.

Antolamendua eguneratzeko abiatutako prozesuan, lantzen ari garen proiektuak bi helburu izango ditu:

1. Autogestioan sakondu, eta erabaki ahalmena lantaldera hedatzen jarraitzea (maila estrategikoan eta operatiboan).
2. Pertsonen ahalduntzean sakontzea, trebakuntza eta osotasunean bizitzeko beharrezko baldintzak eskainiz.

## Aniztasuna integratuz, berdintasuna oinarri

Aniztasunaz ari garenean, aldakorra den zerbaiti buruz ari gara. Gaur egun, generoaz, aniztasun funtzionalaz, etniaz eta jatorri kultural edo geografikoaz, adinaz edo belaunaldi aldaketaz eta sexuaz ari gara. Erakundearen ezaugarrien artean, gai batzuek besteek baino kudeatzeko behar handiagoa sortuko dute. Beraz, ezinbestekoa da aniztasunaren kudeaketa erakundearen konpromisotik sortzea, lan inguruneetako maila eta prozesu guztietara hedatzeko.

Emunen urteak daramatzagu gure kooperatibako aniztasuna kontzienteki kudeatzen, pertsonon berdintasunerako noranzkoan. Jakitun gara aniztasun mota guztiak ezin ditugula aldi berean kudeatu, eta arlo batzuk hankamotz ditugula onartuta, lehentasunak ezarri ditugu.

Bestalde, 2021ean, barne proiektu batean landu dugu “Erakundeetako aniztasunaren kudeaketa” diogunean zertaz ari garen. Marko orokor bat planteatu dugu, eta 2022an Emuneko aniztasunaren kudeaketa plana gauzatzeko dugu.



## Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz

Parekidetasuna da Emunen balioetako bat: “Generoen arteko desorekak gutxitzea bultzatzen dugu, ikuspegi feminista eta eraldatzailearekin portaera ez sexistak bermatzeko.” Sorreratik bertatik, genero berdintasunaren alde agertu izan da beti Emun. Modu nahiko naturalean egin da, besteak beste, emakumeen kopurua handiagoa delako kooperatiban eta ardura postuetan gizonak baino emakume gehiago daudelako.

2012an jarri zen genero berdintasuneko plana martxan. Ia hamar urte pasa dira, eta, une honetan, 2018an onartutako Genero Berdintasuneko Politika daukagu indarrean, 2021-2024ko Plan Estrategikoan bere lekua sendotu duena.

Genero Berdintasuneko Politikaren azken helburua da Emuneko prozesu guztietan eta ematen dugun zerbitzuan genero ikuspegia txertatzea.

### Berdintasun planaren markoa

- 1 Lidergoa, politikak eta kultura aldaketa
- 2 Pertsonak
- 3 Prozesuen kudeaketa
- 4 Gizarte eta inguruarekiko harremana

2021ean, emunkide guztiek izan beharreko oinarrizko ezagutzak lortzeko formazioak prestatu eta eman ditugu. Horretaz gain, emakumeentzako autodefentsa feministan sakontzeko saioak antolatu ditugu, eta egun berezietan pilulak eta mezuak zabaldu ditugu




## Generoaren araberako soldata arrakala

2020an hasi ginen gure soldata arrakalaren neurketa egiten eta urtez urte neurketa sistema hobetzen eta fintzen ari gara.

2021ean generoaren araberako benetako soldata arrakala %2koa da; hau da, emunen sortutako ondasunen %2 gehiago jaso dute gizonezkoek.

Esan bezala, neurketa sistema fintzen eta hobetzen ari gara, eta datozen memorieta kategorian profesionalen araberako arrakalen kalkuluak eta irakurketak egiteko konpromisoa hartu dug.

Gure soldata arrakala legeak arautzen duen %25etik urrun dugu.



\* Urteko ordainsari gordinen batezbestekoaren araberako kalkulua.

## Sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloa

2013an zehaztu zuen Emunek indarkeria mota hauei aurre egiteko protokoloa. 2021ean protokoloa berrikusi dugu, eta laneko jazarpen protokoloarekin batera, eredu bateratua berrikusi dugu, testuinguru osoa islatuz. Jazarpen egoerak kudeatzeko aholkulari konfidentziala, Ikerketa Batzordea eta kanpo adituaren parte hartzea jaso ditugu prozesuan.

Protokoloa aktibatu denetik ez dugu salaketarik izan.



## Adinaren kudeaketa


Duela hiru urte hasi ginen Emunen adinaren kudeaketaren inguruko lehen hausnarketak egiten, gai honi heltzeko hainbat arrazoi genituela jabetuta:

- Prebentzio arlotik -> pertsonon osasunean adinaren ikuspegia zaindu eta kudeatu beharra
- Lan produktiboaren ikuspegitik -> ezagutzaren kudeaketa, arrisku psikosozialak, erretiroa
- Inguruko erakundeetako erretiro aurreratuko mekanismoak

### 2021-2024 aldirako ekintza planaren lau arloak:

- Ezagutzaren transmisioa
- Lan osasuna
- Zaintza
- Erretiroa

## Emunkideak adin tartearen eta generoaren arabera



Datu horiek kontuan izanda, 2021ean, ekintza hauek egin ditugu:

- Bizitza ziklo profesionalen garapena: prestakuntza planean adinaren kudeaketa eta lanbide garapenean bizitza zikloaren ikuspegia txertatu ditugu
- Pertsonen kontratazioan adinaren ikuspegia txertatu dugu, besteak beste, adin ezberdinetako pertsonak gure hautaketetako hautagai izan daitezzen
- Erretiroari begirako elkarrizketak aktibatu ditugu, pertsonaren nahiak eta aukerak lantzeko





## Kontziliazio erantzunkidea

Kontziliazio erantzunkideari buruz ari garenean, ez gara laneko espazioari buruz bakarrik ari; bizitzaz ari gara. Lantokia bizitoki ere badela kontziente izatea da lehenengo pausoa. Lantokian, lankideekin igarotzen dugu bizitzako zati handi bat, eta hor izaten ditugun harremanek eta ikasten ditugun portaerek gure ongizatean eta emankortasunean eragin ikaragarria dute.

Lantokia genero berdintasunaren eta kontziliazioaren ikuspegitik aztertzeak beste ikuspegi bat ematen digu. Ikusarazten digu zein diren beharrezko aldaketak bizitzako beharrei erantzuteko, emozionalki lagungarria den giroa sortzeko eta lanean beharrezkoa den inplikazioa izateko.


Gure bizimoduak jasagarria izan behar du, eta ez soilik ekonomikoki, baita humanoki ere. Horregatik, enpresaren ikuspegia zabaldu eta beste bi elementuri ere arreta jarri behar diegu: familia eta norbere burua. Beraz, enpresak, familiak eta pertsonak, hirurek, barne oreka bat behar dute. Bakoitzak bere oreka lortzen badu, lortuko dugu enpresa lehiakorra izatea, familia orekatua eta pertsona bere buruaren jabe eta erabakiak hartzeko gai izatea. Horrek pertsona bere osotasunean garatzea ekarriko du; hots, pertsona osoa izatea.

Emunen urteak daramatzagu kontziliazio erantzunkidea modu kontzientean lantzen. 1997an sortu zenetik, neurriak eta arauak, pixkanaka, politika eta plan bihurtu dira.


2021ean, lana, familia zein bizitza pertsonala uztartzeko jada erabilgarri genuen telelanaren aukera indartu dugu, eta aukera gisa zabaldu dugu gure ohiko lan praktika eta beharrei erantzuteko. Telelanak eginkizun jakinetarako ematen duen balioaz jabetu gara, eta gure ohiko praktika indartzeko baliabideak eskaini ditugu.

Telelanaren araua eguneratu eta onartu egin dugu, eta erakunde eta emunkideen arteko telelan harremana arautzeko akordio eredu ere sortu, eta praktikan jarri dugu. Eskuzabaltasunez jokatu dugu formatu honen erabilerari dagokionez, eta gehienez gure jardunaren %80 egin ahal izango dugu modu honetan, 2022ko ekitaldian.


### Murrizketak



### Eszedentziak



### Bestelako baimenak



## Pertsonen garapenean inbertitzen dugu

Emunkide bakoitzak bere ibilbide profesionalean garatzeko aukera eta eskubidea bermatua izatea beharrezkoa da guretzat. Garapen integralaren alde egiten dugu Emunen, 3 dimentsio hauek landuz:

**Garapen profesionala.** Pertsona batek bere lanerako beharrezkoak dituen ezagutza, gaitasun, konpetentzia eta jarrerak lantzea, bere erantzukizunaren jarduerari dagozkion eskumenetan hazteko. (Alderdi teknikoari zuzendua).

**Garapen sozietarioa.** Talde lana egiten jakitea edo ikastea. Talde sentimendua, jabekide arduratsuak eta portaera kooperatiboa izatea.

**Garapen pertsonala.** Alderdi emozionala: norberaren ezagutza, autoestimua, autozuzendaritza. Alderdi fisikoa: laneko osasuna eta segurtasuna bermatzea.

2020an, Emuneko lanpostuen mapa eta dimentsionamendua zehazteaz gain, ibilbide profesionalak irudikatu genituen, errotazioaren eta promozioaren arteko ezberdintasunak esplizitatu, eta karrera eta errotazio planak diseinatzeko irizpideak zehaztu.

2021ean, berriz, Emuneko ezagutzaren sakotasun mailak (zoru komuna, oinarritzkoa, zerbitzua emateko, aditua) zerbitzuka identifikatu ditugu, antolamendua eguneratzeko prozesuarekin koherentzian, eta 157 m€ inbertitu ditugu oraingo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko gaitasunak geureganatzeko.

Emunen, gure lantaldeko pertsonen gaitasunak eta ahalmenak indartu eta garatzetik lortuko dugun egoera gisa ulertzen dugu talentua. Ez dugu talentu indibidualen aldeko politiketan sinesten, talde lana dugu gure egiteko modu nagusia, eta, horregatik, adimen kolektiboan jarri dugu indarra. Gure egunerokoan, gure lantaldeko kide guztion gaitasun, ikuspegi eta dohainei lekua egiten diegu, eta garapen orokor zein pertsonalizatua eskaintzen ditugu, emunkide bakoitzak, malgutasunez, bere ikasteko gune pertsonala osatu dezan, eta oraingo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko garatu dadin.



### Ikastaroak

27 barnean  
70 kanpoan

### Espezializazioak

Gizarte erantzukizuneko masterra (1)  
Jabekuntza masterra (2)  
Ingelesa (6)




### Inbertsioa

157.483,54 €

### Dedikazioko

56,68 ordu  
2.684 €

### Garapenean egindako inbertsioa



\* Pandemia urtean, egoera hartatik indartsuago eta garatuago irteteko apustua egin genuen, eta garapenean inbertsio handiagoa egin genuen, gure lanpostuak ez galtzeko.

## Lan ingurune segurua

Laneko osasuna eta segurtasuna bermatzeko ditugun mekanismoen berri jasoko dugu atal honetan. Enpresa edo langune osasuntsua izatea da gure politikaren oinarria, eta horrenbestez, pertsona arduratsuak izatea beren osasun edota ongizatearen zaintzari dagokionez. Horretarako, gure jarduna 5 eragin ardatzen arabera zehaztu dugu. Jarraian 5 ardatzak eta arlo bakoitzean 2021ean egindakoak:



### Lidergoa, politika eta estrategiak

- Prebentzio Batzordea eguneratzea



### Laneko giro fisikoa

- Covid-19arekin lotutako kudeaketa lanak
- Adinaren kudeaketari erantzuteko, 57 urtetik gorako kideekin elkarrizketak
- Bulegoetako larrialdi plana eguneratzea
- Telelanaren arauari erantzuteko lan arriskuen prebentziorako prozesua
- Sentsibilizazio ekintzak: elikadura osasuntsua sustatzeko kanpaina



### Laneko giro psikosoziala

- Arrisku psikosozialen diagnostikoari erantzuteko lan erritmoa zein eskakizun emozionalak hobetzeko proiektuak abiatzea




### Osasunean eragiteko ekintzak

- Urteroko mediku azterketetan genero ikuspegia kontuan hartzeko azterketa



### Komunitatean parte hartzea

- Foroetan parte hartu gure praktika onen berri emateko



\* 2021ean hasi gara absentismoari jarraipena generoaren arabera egiten.







**parte hartzea  
oinarri eta  
helburu**




Balio kooperatiboek aukera ematen digute enpresaren egunerokoan modu aktiboan inplikatze eta gure jardun ekonomikoak gizarte inpaktu sozial iraunkorra sortzeko.


Emun lan elkartuko kooperatiba da, eta bere osaketa sozietarioan 2 lan figura nagusi ditu: bazkideak eta besteren konturako langileak.

Kooperatiba den heinean, gobernantza organo nagusia Batzar Nagusia da; bertan, erakundeko bazkide langileek 'pertsonek boto bat' erabaki ahalmena dute, eta, guztira, erakundearen erabaki ahalmenaren %80 bazkide langileen gain dago.


Gainerako %20a bazkide erabiltzaile eta laguntzaileen (entitate juridikoak + pertsona fisikoak) artean banatzen da, proportzio berean: %10 bakoitzak.



Bazkide langileak



Bazkide laguntzaileak



Bazkide erabiltzaileak



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Pertsona fisiko 1



## Gobernantza egitura

### Batzar Nagusia

**%78**ko parte hartzea

Erabaki organo nagusia da, eta bazkide guztiak dira partaide.

Enpresaren etorkizuneko erronka nagusien eta erakundearen iraunkortasuna bermatzen duten gaien erabakigunea da.

### Kontseilu Errektorea

**%100**eko parte hartzea

Batzar Nagusian aukeratzen da lehendakaria, baita Kontseilu Errektorea osatuko duten gainerako kideak ere.

Kooperatiba ordezkatzen, gobernatzen eta kudeatzen duen organoa da.

### Zuzendaritza Batzordea

**%100**eko parte hartzea

Kontseilu Errektoreak zuzendari nagusia izendatzen du, eta zuzendariak bere lantaldea osatzen du, kudeaketarako beharrezko funtzioak identifikatu ondoren.

Kontseilu Errektorearen aholkulari lanak egiten ditu. Eginkizun nagusizat ditu kooperatibaren garapena aurreikustea, planifikatzea eta sustatzea, bai eta enpresaren kudeaketa hobetzea ere.

### Lankide Bilerak

**%95**eko parte hartzea

Kolektiboak horrela onartuta, Emunen Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideek bikoteka antolatuta betetzen dute Kontseilu Sozialeko figura hileroko egiten diren lankide bileretan.

Zuzendaritza Batzordeari dagokionez, antolamendu aldaketa honi bide emateko, 2021eko abenduan, organoa desegiteko erabakia onartu genuen, eta antolamenduko prozesuari jarraikortasuna emateko, 3 kidek osatutako Koordinazio taldea jarri genuen martxan.

Kontseilu Errektoreari dagokionez, bertako kideak 4 urterako hautatzen dira. 2021ean, idazkariak eta bokal batek zikloa amaitu dute. Ondorioz, bi kide berri hautatu ditugu. Gobernantza organoen funtzionamendu egokirako, Kontseilu Errektoreko kide berriek 24 orduko Heziketa kooperatiboko formazioa jaso dute Otaloran (MONDRAGONeko zuzendaritza eta kooperatiba garapenerako zentroan).





## Arau markoa

Kooperatiba garen heinean, gure Estatutu Sozialek, Barne Araudiak eta urtero berrikusten diren Lan Arauek osatzen dute gure kudeaketa sozialaren oinarria, horietan jasotzen baititugu bete beharreko jarraibideak edo arauak. Halaber, horien osagarri eta xehetasunak garatzeko edo bestelako gai jakin batzuk kudeatzeko politikak ditugu hainbat esparrutan.



Politika eta arauak gutxienez ziklo estrategiko bakoitzean berrikusten ditugu, eta urtean lan araudiaren eguneraketa egiten dugu, urteko berezitasunak jasotzeko.

2021ean Estatutu Sozialak eta Barne Araudia abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Lege berrira egokitu ditugu.



## Bazkide izaera

Emuneko proiektuarekiko atxikimendua enpresaren eta pertsonaren arteko lan harremanak eta soilik horrek sustatzen ez duela jakitun garen arren, bereziki bazkide langilez osatutako kooperatibaren aldeko apustua da gurea, eta horrela jasota daukagu gure kontratazio eta bazkideetza politikan. Urtero berrikusten ditugu bazkideetza plana aktibatzeke politikan zehaztutako baldintzak, eta momentuko egoeraren arabera, bazkideetza plana aktibatzeke erabakia hartzen du Kontseilu Errektoreak: 2021ean, bazkideetza plana aktibatu, eta 3 bazkide berri egiteko erabakia hartu zuen.



## Kooperatibaren jokaera kodea

Emunen, gaur-gaurkoz, ez dugu esplizitatutako jokaera kode idatzi bateratu bat. Gure jarduna arautzen duten hainbat politika ditugu, eta, 2021ean, delituak prebenitzeko lanketa abiatu dugu, compliance penal izenekoa.

Emun Kooperatiba den heinean, kooperatiben oinarrizko printzipioak ditu oinarri bere egunerokoaren kudeaketan:

- Atxikimendu boluntario eta librea.
- Gobernantza demokratikoa
- Bazkideen parte hartze ekonomikoa
- Autonomia eta independentzia
- Hezkuntza, formazioa eta informazioa
- Kooperatiben arteko elkarlana
- Komunitatearekiko interesa



Bestalde, iraunkortasuneko 3 dimentsioei (ekonomikoa, soziala eta ingurumena) erantzuteko jokoera egokirako, jarraibide hauek ditugu.



### **Ekonomikoa**

- Diru fondoaren erabilera egokirako araua
- Irabazien banaketarako araudia
- Bezeroen datu pertsonalen babeserako eta konfidentziasuneko hitzarmenak
- Hizkuntza politika: barne zein kanpo erabilerari dagokionez
- Bisita protokoloa



### **Soziala**

- Lan arauak eta barne araudia
- Laneko denbora kudeatzeko araua
- Kontratazio eta bazkidetza politika
- Gizarte segurantzaren estaldura araua
- Lan jarduneko hutsegiteen araua
- Langabezia egoerarako politika eta araudia
- Garapena, promozioa, ebaluazioa eta ordainsaria
- berdintasun plana
- Sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko portokoloa
- Lan osasuna eta prebentzio politikak
- Datu pertsonalen babeserako dokumentua



### **Ingurumena**

- Ingurumen politika
- Mugikortasuna
- Kontsumoak
- Hondakinen kudeaketa





**planetarekiko  
begirunez  
jokatzen dugu**



Klima larrialdian eragiten duten faktoreen jarraipena egiten dugu, eta gure jarduerak sortzen dituen inpaktuak aztertu eta eragina gutxitzeko apustua egin nahi dugu, txikitik eragiten.

Horregatik, karbono neutro bilakatu nahi dugu 2024an, eta, horretarako, isurpenak murriztuko ditugu, energia trantsiziorako hainbat ekimen abiatuko ditugu, eta konpentsazio proiektuak abiaraziko ditugu, modu jasangarrian egin ere.

Emun aholkularitza enpresa da. Gure zerbitzu eskaintzaren ondorioz, gaur-gaurkoz, ez dugu ingurumen arloko derrigorrezko lege edo araurik. Halere, ingurumenean eragiten genituen ondorio kaltegarriak aztertzeko nahia izan dugu, eta konpromiso horretatik, ingurumen politika onartu genuen 2019an, eta inpaktu negatiboak murrizteko neurriak hartu ditugu.

Hauxe da ingurumen politikaren helburu nagusia: Emunen jarduerak ingurumenean sortzen duen kaltea minimizatzea. Helburu nagusia lortzeko ezinbestekoa da ahalik eta gutxien kutsatzen duten azpiegitura eta baliabideak izatea, eta langileen desplazamenduak gutxitzea, edo egindakoak ahalik eta berdeenak izatea.

Hala, eguneroko lanean erabilgarria izango den erreferentziatzeko marko orokorra osatu dugu. Lau eragin arlo bereizi ditugu, eta bakoitzerako irizpide bana sortu:



## Ingurumen politika

### — Baliabideak eta azpiegiturak

#### Erosketak:

- Kontsumo baxuagokoak

#### Erabilera:

- Gailuak itzali
- Gaikako hondakinen bilketa
- Trukea sustatu

### — Desplazamenduak

- Kotxeak partekatzeko aukerak
- Garraiobide jasangarriagoen erabilera sustatu
- Zerbitzua emateko inpaktu txikiena eragiteko azterketak egin

### — Zerbitzua emateko baliabideak

- Inprimatzeko irizpideak
- Ahalik eta paper gutxien erabili

### — Formazioa


- Ingurumen gaiei inguruko formazioa
- Baliabideak eskaini



## Karbono neutroko erakundea izatea helburu

2018an, gure azterna ekologikoren neurketa egin genuen. 2017ko datuetan oinarrituta, 1. eta 2. irismen mailako neurketa egin genuen.

Bestalde, Emunek ez du garraio flota propiorik, baina gure zerbitzua emateko dugun mugikortasun maila handia ikusita, gure lankideek beraien auto propioak erabiliz egindako desplazamenduak kontuan hartu genituen, inpaktu horren kontzientzia hartu, eta murrizteko aukerak lantzeko. 3. mailako irismen gisa jaso genuen.




### Emisioak murrizteko martxan jarritako plana:

- 1) Ingurumen politika onartu
- 2) Bulegoetan kontsumo jasangarria:
  - Jatorri berriztagarriak lehenetsi: hornitzaile aldaketa
  - Efizientzia hobetu
  - Autosorkuntzarako instalazioa bulego nagusian
- 3) Mugikortasunari dagokionez:
  - Kotxea partekatzeko kontzientzia saioak
  - Sistema birtualean inbertitu mugikortasunua murrizteko
  - Garraiobide jasangarriak sustatu: bizikletak aparkatzeko guneak bulego sarreran
  - Joan-etorrien inpaktua erregistratu



## Mugikortasun ohituretan eraginez

Emisioaren zatirik handiena mugikortasunaren ondoriozkoa zenez, arreta berezia jarri diogu kilometrajearen jarraipenari.



Pandemia tarteko, 2020ko zein 2021eko datuak bereziak dira. Itxialdiak eta telelanaren aukerak nabarmen eragin du gure mugikortasunean. Hurrengo urteak gakoak izango dira telelana edo harremanak online egoki kudeatzeko egin dugun inbertsioaren itzulkina ikusteko.

Erakundeak karbono neutro bilakatzea du helburu, eta murrizketa zein konpentsazio aukerak landuko ditu hurrengo ekitaldietan, 2024. urterako jarri duen helburua erdiesteko.


## Energiaren jatorriari erreparatuz

Elektrizitate kontsumoari dagokionez, Arrasate eta Andoaingo bulegokoak jaso ditugu. Berriozarko bulegoa beste erakunde batzuekin partekatutako espazio da, eta elektrizitate kontsumo banakatuko daturik ez dugu.

2021ean, autosorkuntza instalazioa martxan jarri dugu, eta horren ondorioz, gure kWh kontsumoak behera egin du.

*Arrasateko bulegoko energia beharraren %16 autosorkuntza sistemaren bidez asetu dugu.*

Andoainen dugun bulegoaren energia beharra asetzeko, plaka fotovoltaikoen instalazio kolektiboko proiektuan parte hartzeko interesa azaldu dugu, eta 2022an gauzatuko dugu proiektua, hango beste eragileekin batera.



## Erosketa eta hondakinen kudeaketa iraunkorra

Gure egunerokoan beharrezko ditugun bestelako lehengai edo materialen kontsumoa ere neurtzen dugu, eta helburu nagusia da horien kontsumo arduratsua eta efizientea egitea. Horretarako, hainbat neurri aplikatuko ditugu:



### URA

Arrasateko bulegoko datuak ditugu soilik. Instalazioak aldatu eta egokitzen ditugunean, kontsumo efizienteagoa ahalbideratuko duten gailuen alde egingo dugu.

**6,1** Emunkideko ur litro kontsumoa egunean



### PAPERA

Paperaren erabileraren kontzientzia hartzeko, gure kontsumo datuak neurtzen hasi ginen, eta hondakin gisa egoki kudeatzeaz gain, berrerabili eta birziklatze aukerak martxan ditugu, kontsumoa murrizteko neurriekin batera:

- Aldizkari fisikoen harpidetza modu digitalera pasa
- Inprimagailuan bi aldeetatik eta zuri-beltzean inprimatzeko aukera lehenetsi
- Ordenagailu eramangarri pertsonalak, tabletak eta e-book gailuen erosketa
- Datu konfidentzialik gabeko orriak berrerabili
- Paper birziklatua lehenetsi (FSC zigilua), bulegorako zein komun edo sukalderako.

**982**

Emunkideko folio kontsumoa urtean



### HONDAKINEN KUDEAKETA

Bulegoetan, hondakinak sailkatu, eta kudeaketa egokia egiteko espazioak ditugu. 5 hondakin mota jasotzen ditugu: papera, plastikoa, organikoa, teknologikoa eta errefusa.

Zabor teknologikoa bertako Garbigunera eramaten dugu, tratamendu egokia eman diezaioten.


Gainerakoak kale erabilera orokorreko sistemetara bideratzen ditugu.

Gaur-gaurkoz ez dugu neurketarik egiten birziklatzen ditugun hondakinen gainean.



## Kontzientzia hartzeko panela

Azkenik, emunkideen inplikazioan eta kontzientzian eragiteko, urtero-urtero, gure kontsumo datuak partekatu ohi ditugu modu grafikoan, norberaren esku dauden neurriak baitira martxan jarritako asko, eta horien eragina ikus dezagun.





**komunitatearekin  
batera hazi nahi dugu**



Komunitateak edo gizarteak garai hartan zituen eta etorkizunean izango dituen beharrei erantzuteko sortu ginen, eta gure zerbitzuek helburu nagusi horri erantzuten diote. Komunitate honetako parte garen heinean, eragile aktibo zein bidelagun jokatzuz, elkarlanean eraiki nahi dugu etorkizuneko gizarte euskaldun, justu eta iraunkorra.


Emuneko bisioan adierazten dugun bezala, eragile eta bidelagun izan nahi dugu, eraldaketa sozialaren bidez gizarte euskaldun, justu eta iraunkorra lortzeko. Bide horretan, gure ohiko jarduerarekin edo zerbitzuekin zuzenean inpaktu positiboak sortzen ditugu gertuko komunitatean.

Garapen iraunkorrerako helburuen lanketa oinarri hartuta, gure ekarpena zertan eta zein mailatan definitzera iritsi ginen, eta helburu horietara bideratu ditugu gure indarrak eta baliabideak.

Lehenetsitako arloez gain, gizarte honetako parte garen heinean, gertutik jarraitzen ditugu bestelako mugimendu edo ekimenak, eta emunkideek askatasun osoa dute ekimen horien berri kolektiboan eman eta laguntza kanpainak martxan jartzeko, adibidez: errefuxiatuentzako elikagai edo arropa bilketa, tokiko produktuen salmenta, tokiko erakundeen finantzaketarako laguntza bonoak/errifak...

Kooperatiba garen heinean, legez derrigortuta gaude gure irabazien %10a Interes Publikoko beste Helburu batzuetarako Derrigorrezko Kontribuzio Fondora (IPDK) bideratzera. 2020an ez genuen irabazirik izan, beraz, ezin izan genuen fondoa zuzkitu. Hala ere, gure ustiapen kontuaren kontra ere egin diogu ekarpena dimentsio sozialari:

### Dimentsio sozialera egindako ekarpena





## Euskaraz bizi nahi dugu, hizkuntzen aniztasuna

Erreferente gara lan mundua euskalduntzeko esparruan, eta horri helduz, gure indarrak batzen ditugu, helburu komuna dugunon arteko itunak sinatu, eta elkarlana oinarri duten egitasmoetan parte hartzeko.

Era berean, diruz laguntzen ditugu euskararen normalizazioan lan eskerga egiten duten eragileen urteko ekintza planak edo egitasmo zehatzak, adibidez: Euskara elkarteak, Errigora, Ikaskoli, Seaska...




Tokiko hizkuntzaren kudeaketa inklusiboa duten beste hizkuntza minorizatuekin biziberritze egitasmoetan laguntza teknikoak ematen dugu, eta, hala, gure esperientziatik haien zat baliagarriak diren bideak partekatzen ditugu eta haiengandik ikasi egiten dugu. 2018. urtetik Garabiderekin batera, Mexikoko Tosepan komunitateko Nawat hizkuntzaren garapenean bidelagun gaituzte.

2021. urtean, Tosepanen SEI plana garatua dute (plan sozioekonomiko identitarioa), eta marko horretan dago kokatuta nawat eta totonaku hizkuntzak biziberritzeko elkarlana. Proiektu horretan, formazioa ematen eta prozesua diseinatzeko jardun dute bi emunkidek.

## Genero berdintasuna

Emunen, genero berdintasunaren lanketari goiztiar ekin genion. Erakundea sortu bezain laster, merkatu ekonomikoan eta inguruko enpresetan gailentzen ziren politika eta inertziei aurre egiteko mekanismoak jarri genituen, emakumeen presentzia areagotzeko eta bermatzeko. Harrezkero, gure ezagutzak gizarteratzeko ditugun aukerak baliatzen ditugu, adibidez:

- Martxoaren 8ko greba edo mobilizazioetan aktiboki parte hartzen dugu erakundeko emakumeok. Greba edo mobilizazio aukerak lantzeko estrategiak aztertu izan ditugu, eta greba horietan emakumeen parte hartzea soilik ahalbideratu nahi duten erakundeei aholkuak eman dizkiegu. Greba egunean lan eginda jasoko genukeen ordaina emakumeen aldeko mugimenduetara, Emagin zein emakumeen Bilgunera bideratu izan dugu.
- Emakundeko Bai sarea
- STEAM – Bergarako Migel Altuna institutuarekin batera
- Emaginekoekin batera, Emuneko emakumeen ahalduntzea lantzen dugu, eta autodefentsa saioak eskaini izan dizkiogu kolektibo osoari



## Klima larrialdia



Klima larrialdia dela tarteko eta naturak baliabide fisiko mugatuak dituela-eta egoeraren kontzientzia hartzeko, gure kontsumo ohiturak aztertu ditugu, bereziki azken hiruzpalau urteetan. Hainbat adituren lanen emaitzak partekatu genituen urtero egin ohi dugun heziketa kooperatiboko saioan, eta handik abiatu genituen “Planetarekiko begirunez jokatzeko dugu” atalean jasotako ekimen gehientsuenak.

Emunkideok gaiarekiko dugun ezagutza eta sentsibilizazioa areagotu nahi ditugu, lan esparrutik haratago, baita norberaren bestelako bizi esparruetan ere, arduratsu jokatu dezagun.

## Itunak edo aliantzak

Gure izaera eta misioa tarteko, gure nahia eta bisioa gidatzeko bidelagunak behar ditugu, eta horregatik, beste eragileekin batera indarrak batzen ditugu, hainbat aliantza edo itunetan, konpromisoz, etorkizuneko gizarte euskaldun, justu eta iraunkor baten aldeko urratsak egiteko.

Gizarte honek dituen beharrak atzeman eta elkarrekin erantzuteko proiektu edo ekimenetan parte hartzen dugu, hala nola: Debagoiena 2030, ArantzazuLab, Beterri-Buruntzaldeako mahaia, Euskalgintzaren Kontseilua, Bai euskarari elkarte, Soziolinguistika Klusterra, Langune, Badalab eta bestelako egitasmo xumeagoetan.





# txostena egiteko prozedura





Hauxe da gure lehen iraunkortasun memoria. Gauden honetara iristeko Emunek eginiko ibilbidea laburbildu dugu dagozkion datuekin eta, jakina, etorkizunera begira ezarritako estrategien helburuak zehaztu ditugu, betiere, bilakaera argi eta garbi adierazteko asmoarekin eta, ondorioz, dagokigun erantzukizuna etengabe hobetzen joateko.

Txosten hau idazteko Emuneko materialitate matrizea egiteko prozedura hartu dugu oinarri. Hiru arlo nagusi hauetan laburtzen da:


- Emuneko interes taldeak identifikatu, lehenetsi eta haztatu
- Iraunkortasuna helburu duten Emunerako gai materialak identifikatu
- Emuneko interes taldeei entzun, eta Emuneko beharren analisiarekin batera, gai materialen lehenespena materialitate matrizean irudikatu eta iraunkortasun estrategiak zehaztu.

Eta horren ondorioz, gai material horiekiko urteko informazioa jaso dugu txosten honetan.

2020an, behin interes taldeak identifikatu ondoren, gure gai materialen identifikazio ariketa egin genuen. Horretarako, hainbat eredu hartu genituen oinarri, gai material posibleen katalogo bat izateko, eta haietatik abiatuta Emuneko gai materialak identifikatu genituen, 19 guztira.

EKONOMIKOA	GOBERNANTZA	GIZARTEA	PERTSONAK
1 Berrikuntza, zerbitzu eta sistemetan	6 Erabaki ahalmen partekatua	15 Gertuko komunitatearekin hazteko elkarlana	9 Pertsonon ongizate integrala
2 Bezero orientazioa	7 Talde sentimendua: kohesioa	16 Sektorearekin elkarlana inpaktu soziala areagotzeko	10 Enplegarritasunari erantzuteko garapena
3 Etorkizuneko erronka sozialen zaintza adimentsua	8 Gobernantza ona: erantzukidea, parekidea, gardena, etikoa	17 Aberastasunaren banaketa, ikuspegi ekonomikotik haratago	11 Telelana eta digitalizazioa: zerbitzu/negozio ereduari begirako aldaketa
4 Aliatu eta eragileekin elkarlana			12 Kultura eta antolamendu "egokiak" emuneratu
5 Gai sozialetan/berrikuntza sozialean erreferente izatea			13 Aniztasunaren kudeaketa eta integrazioa
			14 Produkzioko desorekak, lan kargen kudeaketa
	INGURUMENA		
	18 Energia kontsumoa eta CO2 emisioa		
	19 Hornidura/erosketa politika jasagarria		

Amaitzeko, gure interes taldeek eta Emuneko Iraunkortasun Batzordeko kideok identifikatutako gai materialen gaineko balorazioa egin genuen, eta hurrengo ziklo estrategikorako (2021-2024) gure materialitate matrizea adostu genuen.



- 1 - Berrikuntza, zerbitzu eta sistemetan
- 9 - Pertsonon ongizate integrala: fisikoa, psikikoa eta emozionala
- 2 - Bezero orientazioa: harremanak, posizionamendua, beharren identifikazioa
- 7 - Talde sentimendua, kohesioa (bazkide izaera, erantzukizuna, atxikimendua, talde lanaren kultura)
- 10 - Enplegagarritasunari erantzuteko garapen integral eta ebolutiboa, ibilbide profesionala
- 4 - Aliatu eta eragileekin elkarlana
- 5 - Gai sozialetan/berrikuntza sozialean erreferente izatea
- 15 - Gertuko komunitatearekin hazteko elkarlana. Lankidetzan, tokiko beharretan inplikaturik, eta gure inpaktuak aztertu eta kudeatuta

Gainerako koadranteetan ditugunak ere landu eta ebaluatu beharrekoak izango dira, bereziki lehen koadrante horretatik oso gertu daudenak, bai ezkerreko koadranteetik gerturatzen direnak zein beheko koadranteetik gora datozenak:

- Gobernantza ona: erantzunkidea, parekidea, gardena, etikoa... (8)
- Etorkizuneko erronka sozialen zaintza adimentsua (3)
- Erabaki ahalmen partekatua antolamenduko mailetara hedatu (6)

Materialitate matrize honetako ardatzak ikusita, goiko eskuin aldeko gaiak dira iraunkortasuna bermatzeko gakotzat identifikatzen ditugunak.

25 eraldaketan gara  
**emun'**

[www.emun.eus](http://www.emun.eus)